

azpeitianzer?

udal aldizkaria



2016 abendua
177. zenbakia



EKONOMIA SUSPERTZEKO, ERAGITEN

Azpeitiko Udala ekonomia indartu, enpresen egoerak hobera egin eta kalitatezko lanpostuak sortzeko hamaika proiektu garatzen ari da; azken hilabeteotan hainbat enpresa bisitatzen izan da errealitatea gertutik ezagutzeko



ENPLEGUA HELBURU

Azpeitiko Udala langabeziari aurre egiteko hainbat proiektutan eta formazioan sakontzen ari da



ERAIKITZEN

Azpeitiko inguru oso baten eraldaketan eragingo duten obrak ondo bidean dira

Telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00
Alkatetza	943 15 71 85
Idazkaritza	943 15 71 98
Kontuhartzailetza	943 15 71 89
Hirigintza	943 15 71 91
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92
Kultura	943 15 70 68
Parekidetasuna	943 15 79 28
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16
Zapo Txoko	943 15 71 61
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60
Eguneko Zentroa	943 15 74 96
Liburutegia	943 15 71 95
Udaltzainak	943 15 13 13
Suhiltzaileak	112
Igerilekua	943 81 41 21
Kiroldegia	943 81 30 69
Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63
Euskara Patronatua	943 81 45 18
Udal Euskaltegia	943 81 19 47
Lapatx Zabortegia	943 15 18 75
Ingurugiro Etxea Fundazioa	943 15 17 13
Baigera I eta II	943 81 44 64 II / 943 81 23 89
Ingurugiro Etxea Museoa	943 81 24 48

Botika txandak

ALBERDI.
Jose de Artetxe 6 • Tel.: 943 81 59 74
Abenduaren 2, 5, 13, 17, 18, 23 eta 29

ARANBURU
Plaza Nagusia - Goiko kalea 2,
Tel.: 943 81 13 50
Abenduaren 3, 4, 6, 12, 21 eta 28

BERISTAIN
Urbite auzoa 3 • Tel.: 943 81 19 49
Abenduaren 9, 10, 11, 16 eta 24
EIZAGIRRE
Enparan 29 • Tel.: 943 81 12 74
Abenduaren 1, 7, 15, 20, 22, 26 eta 31

JACOME
Garmendi 21 • Tel.: 943 08 02 58
Abenduaren 8, 14, 19, 25, 27, 30

Ale honetan zer?

Enplegua helburu	2
Ekonomia sendotzen	8
Azpeitia euskalduna	12
Tasa eta zergak	14
Eraikitzen	16

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala
Egilea: Prentsa bulegoa
Diseinua eta argazkiak:
EREGL, Euskara eta Komunikazioa

Ale kopurua: 7.000
L.G: SS - 1148/91

Azpeititik kanpo bizi
arren, zure etxean jaso
dezakezu Azpeitian Zer?
aldizkari hau posta bidez.
Egin eskaria 943 15 71 85
(Alkatetza) telefonoz.

Azpeitia ezagutzen

- 1. NONDIK GATOZ?**
- 2. NOLA SORTU GINEN?**
- 3. HANDITZEN HANDITZEN**
- 4. JASO DUGUN ALTXORRA**
- 5. IZAN ZIRELAKO GARA**
- 6. NORA GOAZ?**

- Argitaratzailea: Azpeitiko Udala (Hezkuntza Saila)
- Egilea eta koordinazio lanak: Olatz Aranguren Juaristi
- Ilustrazioak: Iban Izaguirre Uranga
- Diseinua: EREGL, Euskara eta Komunikazioa
- Aholkularitza: HIK HASI Euskal Heziketarako egitasmoa



Lihoa

Euskal emakumeek joera handia zuten negozioetan modu aktiboan parte hartzeko. Emakume azpeitiarrek ere harreman berezia zuten ehungintzarekin. Baina ez ziren horretan bakarrik aritu; adibidez batek baino gehiagok Ternuan inbertsioak zituzten (Ternuan bakailaoa eta baleak arrantzatzen zituzten). Hala ere ez zen edozein izaten inbertsio hauek egiten zituen, gehienetan handikiren baten alargunak izan ohi ziren. Emakumeak alargun geratzen zirenean burdinaren fabrikazioarekin

zerikusia zuten jardueraz ardura zuten ziren, babespeko adinean zeuden semeetako batek burdinolaren edo burdina lantzeko beste instalazio baten ardura hartzen zuen arte. Hala, 1752an, Azpeitiko bederatzi burdinoletatik bi emakumeen ardurapean zeuden.

Horiek, ordea, negozio puntualak izan ziren eta emakumeek parte hartze txikia izan zuten. Ehungintzan, ordea, emakumeen presentzia, nabaritu ez ezik, herriaren ekonomiarako funtsezkoa ere izan zen.

Enplegua helburu

Lanpostu berrien kalitatearen kezka aurre egiteko neurriak aztertzen

Langabeziari aurre egiteko neurriak eragiten ari dira: azaroan %10,6koa izan da langabezia tasa Azpeitian; urtarrilean, %11,9koa zen; urtebetea puntu bat baino gehiago jaitsi da



Krisia hasi zenetik, une gogorak izan ditu Azpeitiak. Hala ere, langabezia datuei erreparatuz gero, gero eta egoera hobea du herriak. Gora beherak eta salbuespenak salbuespen, hilabetero lanbiden izena emandako gero eta herritar gutxiago daude. Azaroan %10,6koa da Azpeitiko langabezia tasa. Eskualdeko, Gipuzkoako edota Euskal Autonomia Erkidegoko langabezia tasaren azpitik dago, beraz.

Azken urteotan, Azpeitiko Udal osoa ekonomia sustatu eta langabeziari aurre egiteko ari da lanean. Udal ekonomia, langabezia eta behar sozialak ardatz hartuta ari da lanean. Bide horretan, Azpeitiko Udalak apustu sendoa egin du, eta datuek diote bide

ona dela Udalak hartutakoa. Hala ere, Udal sortzen den enpleguaren kalitatearen inguruan arduratuta dago: "Kalitatezko enplegua sortzea nahi dugu herrian, eta gaur egun sortzen den enpleguaren kalitateak ardiratzen gaitu", adierazi du Eneko Etxeberria Azpeitiko alkateak.

Azpeitiko Udalak bederatzi lagun kontratatu ditu azken hiru hilabeteotan

9 lanpostu

Eskualdeko Enplegu sustapen planaren baitan, Azpeitiko Udalaren izenean eskatutako aldi baterako 18 lanpostu sortzea onartu zuen Lanbidek, erakunde horrek urtero eman ohi dituen diru laguntzaren baitan. 18 lanpostu horiek eskualdeko herri desberdinetan banatu dira, eta Azpeitian horietatik erdiak, 9 lanpostu sortu dira edota sortuko dira datozen asteotan, aldi baterako. Deialdi publikoak egiten ari da Udalako bakoitzera.

Lanbideren bidez egin edo egingo diren kontratazioerako ezinbestekoa da Lanbiden izena emanda egotea eta lan eskaintza bakoitzera eskatzen diren eskakizunak betetzea.

Iraurgi Berritzenen topaketetan ere, eskualdean ekonomia sustatzea erronka



azpeitiko udaletxeko 5.solairuan Iraurgi Berritzenen XIV.Topaketak egin berri dira, 'Elkarrekin eskualdea eraldatzen' lelopean. Azpeitiko Udalak Azkoitikoarekin elkarlanean udal-erakunde publikoen sustapen sozioekonomiko eta berrikuntzarako estrategia bateratzen ditu Iraurgi Berritzenen bidez. Bi urtean behin egin ohi diren topaketetan abian dituzten proiektuetan emandako pausoen inguruan hitz egin eta aurrera begirako estrategian sakontzea da helburu. Aurtengoan, eskualdeko 20 enpresetako 23 ordezkari, 6 ikastetxe, Azpeitiko Alkatea Eneko Etxeberria, Azkoitiko Alkatea Jabier Zubizarreta, Zestoako Alkatea Josetxo Mendizabal, udaletako ekonomia eta hezkuntza zinegotziak, eta IB ko arduradun eta teknikoek hartu bildu ziren.

Bilera horretan eragilean artean eginiko dinamiketan hiru puntu nagusi aipatu ziren. Alde batetik etorkizuneko

interesgarriak izango diren jardueren inguruan aritu ziren, besteak beste ICTak, turismo jarduerak edota zientzia humanistikoak aipatu ziren. Etorkizuneko langileen profilaz eta beharrezko izango diren gaitasunez ere sakondu zuten parte hartzaileek.

Bukatzeko, gizartea, gazteak, eta industria edo enpresen arteko zubi lanaren beharraz ere aritu ziren. Hezkuntza eta bestelako sektore edota eragilean eta enpresen arteko elkar ezagutza lantzeko beharraz ere aritu ziren.

Proiektuak ezagutzeko abagunea

Pasatu den urteko eragileengandik jasotako proposamenei erantzunez, Udalek Iraurgi Berritzenen bidez sortutako sarean gaur egun abian dauden proiektuaren berri ere eman zuten. Besteak beste, enpresen arteko elkarlana eta berrikuntza sustatzera zuzenduak dauden proiektuak azaldu ziren: Enpresa traktore eta

hornitzaileen elkarlana helburu duen Hornitu Proiektua; Enpresen Kudeaketa ereduaren partaidetza sustatzeko proiektuak, eta Enpresen kapazitate eta sensibilizaziorako jardunaldiak berrikuntza esparruetan.

Hezkuntzan, berriz, eskualdeko ikastetxe guztiak elkarlanean garatzen ari diren gazteei zuzenduriko proiektuak gazteei zuzenduak: ekintzailetasun baloreak eta metodologia berrien irakasleen formakuntza helburua duen Elkarrekin Eraikitzen Proiektua; IKT eta sare sozialen proiektu berrien ildoak ere azaldu ziren.

Langabeziari aurre eginez

Garapen gunea Azpeitiko eta Azkoitiko udalek elkarlanean garatu dute enplegua sustatu, langabeziaren azterketa egin eta ekintza planaren bidez langabetuak laneratzeko programak aurrera eman, eskualdeko enplegu eskaintza bateratua eskaini eta orientazioa eta formazio eskaintza zabaltzeko.

Urolanprest.eus lan mundurako eskaintza, orientazioa eta formazioa

Langabetuek zein lana aldatzeko asmotan dabiltzanei informazioa osatua klik batean eskaintzako webgunea abian da, Udalaren ekimenez



Langabeziari aurre egiteko helburu horrekin hamaika egitasmo eta proiektu garatzen ari da Azpeitiko Udalak; bai bera bakarrik, zein eskualde mailan, Iraurgi Berritzen garapen agentziaren baitan.

Bide horretan, jarri da martxan urolanprest.eus webgunea, 2016-2019 ekintza planaren baitan. Duela zenbait urte Azpeitiko Udalak abiatutako proiektua da sarean lan-eskaintzak, orientazioa eta formazio eskaintzak biltzearena, baina herritarren beharrak eta joerak ikusita Iraurgi Berritzenen bidez eskualdera zabaltzeko apustua egin zen.

Eneko Etxeberria Azpeitiko alkateren hitzetan "elkarlanaren emaitza" dira

ekintza plana zein webgunea: "Denon artean lortu dugu guretzat lehentasuna den langabeziari aurre egiteko proiektua egitea. Bakarrik ezin dugu horrelako proiekturik egin".

Informazioa, orientazioa eta formazioa

Webgune honen bidez eskuandeko langabetuei ahalik eta informazio baliogarri, osatu, eta erarik egokienean ematea da helburua. Horretarako hiru bloketan banatuta dago.

- **Enplegua.** Lan eskaintzen inguruko informazio bateratua eta eguneratua aurkitu dezakezu bertan. Enpresen lan eskaintzak, beka edo praktikak, lan eskaintza publikoa...

- **Orientazioa.** Langabezian dauden pertsonei edo enplegua hobetzea nahi duten pertsonei zuzendutako zerbitzu guztien informazioa jasotzen du.

- **Prestakuntza.** Eragile desberdinek eskaintzen dituzten lanerako prestakuntza aukerak ezagutzeko atala.

Enplegu eskaintza osatua, langabezian daudenentzat arreta zerbitzua eta formaziorako dagoen eskaintza osatua eskaintzen dira urolanprest.eus webgunean

Formazioa: langabeziari aurre egiteko tresna estrategikoa

Azpeitiko Udalak urteetan mendekotasunari lotuta eskaini dituen ikastaroetatik abiatuta, Mendekotasuna duten Pertsonen harretarako Lanbide Heziketako zikloa eskualdean eskaintza lortu da ikasturte honetan



ezinduek, elbarrituak, adinekoak eta buruko gaixotasunak dituzte pertsonen arretaren arloan lan eskaria handituz joango dela eskualdean ondorioztatu zuen Azpeitiko Udalak duela zenbait urte egindako ikerketa batek. Erronka horri aurre egiteko ordea, profesional kualifikatuen falta ere izango zela nabarmendu zen. Hala, ordura arte Azpeitian mendekotasunaren inguruan eskaintzen ziren ikastaroetaz gain, salto kualitatibo bat egitea erabaki zuen Udalak.

“Aukera zabala genuen lanbide heziketako zikloa eskaintzeko, baina guk hezkuntza publikoaren aldeko apustua egin dugu hasieratik”, azaltzen du Eneko Etxeberria alkatea. Azpeitiko sare publikoan, ordea, ez da lanbide heziketarik eskaintzen, eta

aukera bakarra Azpeitia-Azkoitia BHI ikastetxeak Azkoitian duen egoitzan kokatzea izan da: “Tarteka, bakoitzak bere herrira begira egon beharrean, prespektiba zabaltzeko eta eskualdearen, eta beraz, bakoitzaren herriaren alde egin behar izaten da, proiektua aldameneko

Lanbide heziketako ziklo horren bidez langabeziari aurre egiteko prestakuntza eskaintzeaz gain, etorkizuneko erronkei aurre egiteko prestatu nahi da eskualdea

herrian gauzatuko bada ere”, adierazi du Etxeberriak. Eta horixe izan da hezkuntza proiektu honen kasua. Horretarako, ezinbestekoa izan da elkarlana, Azpeitiko zein Azkoitiko udalena, zein ikastetxeko bertako zuzendari eta kideena: “Elkarlanik gabe ezinezkoa da horrelako proiektuak garatu eta aurrera ematea. Elkarlanak egin du hau posible”, azpimarratzen du Etxeberriak.

Leire Goenaga Hezkuntza zinegotziak langabeziari aurre egiteko tresna prestakuntza dela gogorarazi nahi izan du: “Lan munduak gero eta pertsona prestatuagoak eskatzen ditu, jende kualifikatua, tituluduna, eta Azpeitiko Udala hori ahalbideratu nahian dabil azken urteotan. Bide horretan lanbide

Iñigo Azkue, mintegi burua

“Zikloa egonkortzea da gure erronka”

Iñigo Azkue azpeitiarra da Mendekotasuna duten Pertsonen harretarako Lanbide Heziketa zikloko mintegi burua. Irailetik ari da Azpeitia-Azkoitia IBH ikastetxean lan horretan, eta “gustura” da zikloak izandako harrerarekin, eta zikloa abian jartzeko egiten ari diren lanarekin.



Azpeitiko Udalak mendekotasunaren inguruan abian jarrita zituen ikastaroak Lanbide Heziketako ziklo bihurtu dira elkarlanaren ondorioz

Zikloaren erronka nagusiak eskualdeko eskaintza egonkortzea, etorkizuneko taldeak sendotzea eta eragileekin elkarlanerako bideak irekitzea dira

heziketarako salto hau pauso garrantzitsua da, baina ez da lehena eta ezta bakarra ere”, gogorarazi du.

Bi urteko prestakuntza

Irailean hasi zen lanbide heziketako lehen ikasturtean 18 lagun matrikulatu dira, baina 25 lagunentzako prestatutako zikloa da. Bi ikasturtean, bi urtean egiteko prestatuta dago, eta 2.000 ordu iraungo du denera, ikastaro teorikoak zein praktika aldiak. Lehen mailan, urte osoa eskolan bertan egingo dute, baina kolaborazio batzuk ere egingo dituzte: zaharren egoitzetan, azpiegitura publikoetan, etxek etxeko zerbitzuetan... Bigarren mailan, berriz, lehen zatia teorikoa izango da, eta otsailetik ekainera praktikak egingo dituzte. Hiru esparrutan egin daitezke praktikak horiek: telelaguntza zerbitzuan –mendekotasun egoeran dauden pertsonen erabiltzen duten telefono bidezko laguntza da–, etxek etxeko laguntza zerbitzuan edo azpiegitura publikoetan.

Zikloa amaitzean, bailarako hainbat enpresatan lan egin ahal izango dute ikasleek, esparru askotan: zahar etxeetan, eguneko zentroetan, Gureaken...

“Irailean hezkuntza sailak plazak banatzeko egiten duen lehiaketara hemengo plaza hartzeko asmoarekin joan nintzen, eta ordutik naiz hemen”, azaltzen du. Aurretik beste ikastetxe batzuetan aritu ostean iritsi da Azkoitira Azkue. “Ziklo hau etxetik gertu izateko aukeraren berri izan nuenetik izan dut interesa, eta irailean postu honetara etortzeko interesa nuen, eta aukera izan nuen”, segitzen du.

Irailez geroztik ari da Urola ikastetxean lanean, mintegi buru eta irakasle eta gustura dago orain artekoarekin: “Esperientzia banuen, baina hemen ia zerotik antolatu behar izan dugu guztia. Erronka handia izan da guretzat ere, baina bagenekien zein erronkari aurre egin beharko genion hona etortzean”, adierazi du.

18 laguneko talde polita osatu dute aurtengo ikasturterako: “Hala ere, 25 lagunentzako dugu lekua, eta urtez urte plaza horiek bete eta zikloa egonkortzea da gure helburua orain”, azaltzen du. Horretaz gain, bailarako esparru horretan lanean ari direnekin harremanak egin eta hitzarmen bidez elkarlanerako bideak irekitzea ere badarabilte buruan: “Bailarara zabaltzeko eta hemen egiten dugunetik bailara aberastea, eta hemengo lanak bailarak arlo honetan dituen erronkei aurre egiteko baliagarri izatea nahi dugu”, azpimarratzen du Azkuek.

Enkonomia indartzen segitzeko, begia industrian jarrita

Enplegua duina eta kalitatezkoa sortzea da azken urteotan Udalak duen lehentasunetako bat; industriaren egoera ezagutzeko asmoz enpresetara bisitak egiten ari dituzte udal ordezkariak



Sustapen planaren bidez kalitatezko enplegua sortu eta enpresen inbertsionarako diru laguntzak emateaz gain, Azpeitiko Udalak enpresen egunerokoa ezagutu eta herriko industria arloaren erronken berri izateko hainbat enpresa bisitatzen ari da da azken hilabeteotan. Bide horretan Irurena, Domusa, Kimu bat, Sarralle, Danona, Tecnalia eta 50. urteurrena bete berri duen Zubiola enpresak bisitatu dituzte udal ordezkariak.

Bisita horietan enpresetako arduradunek, orokorrean, zailtasunak zailtasun, egoera hobetzen ari dela adierazi diete udal

ordezkariak: "Bisitatu ditugun enpresa gehienak urte zailen ostean, egoera berriro egonkortu xamartuta dute. Inbertsio berriak eta lan erronka berriak dituzte buruan, eta hori guretzat oso pozgarria da", adierazi du Eneko Etxeberria alkateak.

Enplegu duina helburu

Enpresen eta langileen egoera ezagutzea izan da bileren helburua. "Jakitun gara enplegua sortzen ari dela, baina sortzen den enpleguaren kalitateak arduratzen gaitu", adierazi du. Udalaren erronka hori dela azpimarratu du segidan: "Enpleguaren kalitatean eragiteko ahaleginak egitea dagokigu. Egoera hobetzen ari da

enpresentzat, eta langileentzat ere horrela izan dadin neurriak hartuko ditugu".

Industria erakartzeko neurriak

Herriko industria eta enpresei laguntzak eskaintzeaz gain, industria berriak Azpeitira erakartzeko hainbat neurri ere hartu ditu Udalak azken aldian. Hala, Basarte industriaguneko Azpeitiko aldean kokatzeagatik Ormola SL enpresari eraikuntza, instalazio eta obran gaineko zergaren hobaria ematea erabaki zuen udalbatzak azaroko plenoan, aho batez. 2017ko ordenantza fiskalen bitartez kooperatibei %50eko hobaria ematea ere onartua du Udalak



Danona eta Irurena: Inbertsio berriekin, etorkizuna eraikitzen

Enpresetara Udala egiten ari den bisitetako lehenak Irurena eta Danonara egin zituzten. Udal ordezkariak, eta bi kasuetan albiste onak jaso zituzten. Bi enpresek inbertsio berriak egin eta enpresa berriak eskuratu baitituzte azken hilabeteotan. Irurenaren kasuan, Urnietako enpresa bat erosi eta Azpeitira ekarri berri du eta handitzen ari dira. Danonaren kasuan, berri, urte luzez bizi izan duen egoera delikatuari pixkanaka buelta ematen ari dira, eta udan Oñatiko lantokia eta Azpeitira ekarri dute. Herrirako apustua indartuz biak.

Kalitatezko enplegua sortzea da gure helburua eta bide horretan enpresen beharrak eta enpleguaren inguruan ditugun kezkak zuzenean jasotzen ari gara. Baditugu beste tresnak, garapen agentzian, baina proiektu konkretu batzuek zuzenean ezagutu eta elkarlanean arazoei aurre egiteko" adierazi du, Eneko Etxeberria alkateak. "Enplegua da gure herritarren lehentasuna, eta gaur egun ditugun tresnak, sustapen ekonomikoa, lur industrialak eta antolamendua ebaluatu nahi ditugu, batez ere", dio.



Francisco Vera, Danona

"Inbertsio bat egiteko asmotik, familiako proiektua izatera pasatu da Danona"

Francisco Verak MCCren gainbeheran izan zuen Danonaren berri: "Lagun on batek gainbehera horretan inbertsionarako aukera on batzuk zeudela eta enpresa batzuen berri eman zidan", azaltzen du. Enpresa horien artean zegoen Danona.

Hasierako asmoa, beste sozio batekin batera inbertsio bat egitea zen, baina hilabeteak aurrera joan ahala, inbertsio bat baino askoz gehiago izaten bukatu du enpresak: "Inbertsio bat egiteko

asmoarekin hasi ginen, baina gero eta gehiago inplikatzeko hasi nintzen eta familiako enpresa, edo familiaren proiektu izaten bukatu du Danonak", azaltzen du.

Gustura da azken urte eta erdian Danonan eginiko aldaketekin: "Aurreikusitako baino makalago goaz, baina azkar joatea baino garrantzitsuagoa da guretzat Danona osatzen dugunon arteko puzzlea ondo osatzea", adierazten du. Gustura da Danonan eta herrian egin dioten

harrerarekin: "Leku ederra da Azpeitia, asko gustatzen zaizkigu, eta Danonako lan taldean sartzea ere oso erraza izan da", gaineratzen du.

Azpeitian eta lan taldean integratzeko beste pauso garrantzitsu bat ere eman du euskara ikasten hasi da udal euskaltegian: "Hemen beharrezkoa da euskaraz jakitea. Asteaz bi egun izaten naiz Azpeitian, eta euskara klasea dira inoiz galdu ezin dudana hitzordua. Sakratua da niretzat", dio.



Domusa: Egonkortuta, arazoei aurre egiteko elkarlanerako prest

Domusako eraikin nagusia Errezilen dago, baina enpresaren zati bat, almazena Landetan dago. Kooperatibaren egoera eta arazoak zuzenean ezagutzeko Xeberro Agirretxe Errezilgo eta Eneko Etxeberría Azpeitiko alkateak eta Aitor Bereziartua Azpeitiko zinegotzia batera joan ziren Domusa kooperatiba bisitatzerá.

Bertan, Maria Dominguez Domusako arduradunarekin bildu ziren, eta enpresaren nondik norakoez aritu ziren Azpeitiko Udalak sustapen ekonomikoaren xehetasunak emateaz gain, kooperatiben kasuan, datorren urtetik aurrera IAEen %50eko hobaria ezartzea erabaki zela adierazi die (Landetako egoitzaren kasuan). Horretaz gain, bi udalak elkarlanerako prestutasuna azaldu diete bai enpresarako irisgarritasuna hobetzen laguntzeko, konkretuki enpresako sarrerako errepidea hobetzeko, Foru Aldundiari moldaketak eskatzeko, eta baita formakuntza arloan sakontzeko eta elkarlanerako aukerak aztertzeko ere.

Sarralle: Inbertsio handietan bere lekua bilatzen

Enplegua sustatzeko hartutako neurriak eraginkorrak izan daitezzen errealitatea gertutik ezagutu eta aurrera begirako erronkak eta asmoak ezagutzeko errondaren baitan, enplegua, batez ere, kalitatezko enplegua sortzeko aukera eskaini dezaketen proiektuak ezagutu nahi izan ditu Udalak.

Azken asteotan albiste izan da Azpeitiko Sarralle enpresa Sidenorrek Basaurin egingo duen inbertsioaren hiru zatietako bat eskuratu ostean. Azpeitiko enpresen errealitatea ezagutzeko Udalak egiten ari den bisiten baitan, Eneko Etxeberría eta Aitor Bereziartua Sarralle enpresako arduradunekin bildu ziren lortutako kontratuagatik zoriondu eta enpresaren egoera gertutik ezagutzeko.

Udal arduradunek azpimarratu dute poztekoa dela Azpeitiko enpresa batek horrelako kontratua lortzea; horrek, teknologiaren aldeko apustua eta enplegua sortzea esan nahi baitu. Bide horretan, kalitatezko enplegua sortzeko beharra azpimarratu dute enpresako arduradunekin.



Tecnalia: zentro teknologikoa hezkuntzara gerturatzeko saiakera

Eneko Etxeberría Azpeitiko alkatea, Leire Goenaga Hezkuntza zinegotziarekin eta Maje Agirre (Iraurgi ikastetxeko zuzendaria), Alberto Izagirre (Urola Azpeitia-Azkoitia BHI ikastetxeko zuzendaria) eta Arantxa Bidezabalekin batera (Azpeitiko Ikastola Ikasberri Kooperatibako zuzendaria) Tecnaliak Azpeitian duen teknologia zentroa bisitatzen izan ziren duela enbait aste.

Bisita honen bidez herriko ikastetxeen eta ikasleen eta lan munduaren arteko zubiak, edota enpresak eta herritarren arteko zubiak eraikitzeke lehen pausoa ematea izan da helburua.

Horretarako, Tecnaliako arduradunek zentro teknologikoaren nondik norakoak azaldu dizkiete ikastetxeetako arduradunei ikerketan egiten duten lanaren berri izan dezaten, horrela, elkarlanerako aukerak lantzeko bidea irekitzeko. Ikastetxeetako arduradunen hitzetan bisita interesgarria izan zen.

Kimu bat: Berrikuntzan begiak jarrita lanean

“Poztekoa da Kimu Baten eraldaketa eta berritzearen ondoren osasuntsu eta indartsu dagoela ikustea. Etorkizunera begira berrikuntza arloko proiektuak aurrera eramateko duen indar eta konpromisoa ere azpimarratzekoak dira”, azaldu zien Eneko Etxeberría alkateak enpresako arduradunei.

Kimu bat enpresak aurkeztu izan ditu bere proiektuak sustapen planera, eta onuradun ere izan da. Bide horretan, etorkizunean ere beharrezkoa ikusten badute udal laguntza horiek kontuan izango dituztela jakinarazi zien.

Denda eta lorazaintza zerbitzuez gain, proba pilotu gisa abian duten uren arazketarako proiektu berritzaile baten berri eman zieten Kimu Bateko ordezkariak Udal arduradunei. “Proiektu berritzaileak, garapenari eta ekologiarri loturiko proiektu berriak garatzeko Kimu batek duen gogoia izugarria da, eta guk, ahal dugun heinean, gure laguntza eskainiko dizkiogu”, adierazi zuen Josu Labaka zinegotziak bisitaren bukaeran.



Herriaren euskalduntzean eta sentsibilizazioan eragiten

Euskararen erabileraren etorkizuna bermatzeko euskara debalde ikasteko aukera eskaintzeaz gain, sentsibilizazio lana ere egiten du Udalak ikastetxeekin elkarlanean



Arnasguneen inguruko sentsibilizazioa

Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) eta Azpeitiko Udalak elkarlanean, heuskararen arnasguneen inguruko hezkuntza proiektua jarri dute abian, herrian, DBH eta Batxilergoko mailetan.

Proiektu horren helburua da udalerri euskaldunetako ikasleek euskararen egoeraz sentsibilizatzea eta gaiaren inguruan hausnartzea. Josu Labaka Azpeitiko Udalaren Euskara zinegotzi eta UEMAko lehendakariaren hitzetan euskararen arnasguneetan "atzerakada" izan du euskararen ezagutza eta erabilerak, "eta horri erantzunez dator proiektu hau", adierazi du.

DBHko mailetan, UEMAko teknikariek irakasleei ematen dizkiete prestakuntza saioak, ondoren horiek ikasleekin lanketa egin dezaten. Batxilergoan, berriz UEMAko teknikariek zuzenean ematen dizkiete saioak.

Euskararen erabileraren sentsibilizazioan eragiteko ekintzak bultzatzen ari da Udalak; tartean arnasguneen inguruko tailerrak ikastetxeetan

Euskalegia: euskaraz ikasteko ezinbestekoa

Azaroan, Azpeitiko Udalak Udal euskaltegian ikasturtea hasi duten ikasleei ongi etorri festa egin nahi izan zien, iaz bezala. Euskaltegiko ikasleekin batera izan ziren mintzapraktiketan aritzen diren herritarrek ere. Lagun artean, ikasturte berriari ekiteko ilusioa eta indarrak hartu zituzten.

Udal euskaltegiak 100 ikastarotik gora eskainiko ditu debalde, aurtengo ikasturtean, maila eta iraupen desberdinetakoak. Eta gaur egun, 300 ikasle inguru ditu. Eneko Etxeberriak euskara ikasteaz "ez direla damutuko" azaldu zien, eta "Azpeitia eta gure kultura ezagutzeko bide bat" dela ere gogorarazi zien ikasturte hasierako festara bertaratutakoei.



Kaleko hamar elkarrizketetatik zortzi euskaraz egiten dira Azpeitian

Kaleko hizkuntza erabileraren neurketaz gain, Euskal Herri osoan lehen aldiz hitanoaren erabilera neurtu da Azpeitiak "horretarako baldintzak eskaintzen dituelako"



S oziolinguistika klusterraren bitartez Azpeitiko hizkuntza-erabilera-
ren era hitanoaren presentziaren neurketa egin du Udalak.

Josu Labaka Euskara Batzordeburuaren hitzetan, Azpeitiak euskararen arnasgune izaten segitzen du: "Azpeitia munduko udalerri euskaldunetako delako esan ohi dugu, eta horrela izaten jarraitzen dugu. Euskarak bizi eta sendo segitzen du gure herrian". Aurtun, gainera, Udalak hala eskatuta hitanoaren erabileraren neurketa ere egin da: "Gure eskariz, proba pilotu gisa, neurtu da hitanoaren erabilera. Euskararen erabileratik haratago, gure herrian hitanoa neurtzeko

baldintzak ere badaudelako", adierazi du. Etorkizunari begira datu bat azpimarratzen du: "Gure herriko haurren elkarrizketen %96a euskaraz izaten da. Datu oso altua da, eta etorkizunean Azpeitia oraindik eta euskaldunagoa izateko datu azpimarragarria dela iruditzen zaigu".

Haurrek arteko elkarrizketatan entzuten da gehien bat euskara kalean: heldurik gabe, bakarrik daudenean %96koa da euskararen erabilera

Udalak herritarrei euskaraz ikasteko baliabide eta proiektuak eskaintzen segituko duela berretsi du: "Udal euskaltegiaren bidez eta herritarrek antolatzen dituzten egitasmoen bidez, herria euskalduntzeko ekimenak bultzatzen jarraituko du Udalak. Datu hori, pixkanaka-pixkanaka hobetzen joatea baita helburua", adierazi du.

Azterketaren ondorio nagusiak

1. Klean entzundako hamar elkarrizketetatik zortzi euskaraz izan dira (%81,9), eta baten bueltan gaztelaniaz (%14,0). Beste hizkuntza batzuetan erabilerak asko egin du gora, %4,2.
2. Gizonezkoek emakumezkoek baino zertxobait gehiago hitz egiten dute euskaraz: gizonezkoen erabilera %83,3 izan da, eta emakumezkoena %80,8.
3. Haurrak (2-14 urte) dira euskara gehien erabiltzen dutenak (%89,6). Euskara gutxien erabiltzen dutenak, berriz, helduak lirateke %76,1. Gazteen eta adinekoen kasuan pareko erabilera neurtu dela esan genezake, %83,3 eta %83,1, hurrenez hurren. Nabarmenezkoa da lau adin-taldeetako erabilera maila altua.
4. Haurrak bakarrik (nagusirik gabe) daudenean %96koa da euskarazko erabilera. Aldiz, nagusiek, beren artean (haurrik gabe) ari direnean, dezentet gutxiago erabiltzen dute euskara (%74,2). Haurrek eta helduek osatutako taldeetan, berriz, %85,9ra igotzen da erabilera.
5. Adin-taldeak nahasturik daudenean, haurra hitz egiten ari bada erabilera altuagoa da (%88,2), nagusia hitz egiten ari denean baino (%83,9).
6. Amaitzeko, euskarazko hitanoaren aldaerarik erabilienean toka da (%45,1), ondoren hika neutroa (%37,2) eta azkenik, noka (%17,5). Hitanoa gehiago erabiltzen dute gizonezkoek (%28,1) emakumezkoek baino (%10,6); eta adin-taldeen arabera, hurrenez hurren, adinekoek (%29,8) darabilte gehiago, ondoren gazteak (%25,0), helduek jarraian (%23,5) eta haurrak dira gutxien erabiltzen dutenak (%5,5).

2017. urteko tasa eta zergak bere horretan, ez ohiko salbuespen bat izan ezik

Gipuzkoako Foru Aldundiak katastroan egindako aldaketetara egokitzeko Ondasun Higiezinaren Gaineko Zergan igoera izango da; hala ere, konpentsatzeko diru-laguntzak emango ditu



Urriko ohiko plenoan 2017. urteko tasa eta zergak onartu ziren, EH Bilduren aldeko botoekin (10) eta EAJren kontrako botoekin (7). Udalak, zergak ez igotzea, erabaki du; KPla erreferentzia gisa hartzen da horretarako, eta hori negatiboa izan denez, (-%0,1), tasa eta zergak bere horretan mantentzea erabaki du, orohar.

Irizpide nagusia ordenantza fiskalen bidez zehaztutako tasa eta zergak izotzea izan bada ere, badiira Udalak herritarren eta herriaren beharrei eta ongizateari begira egokitutako hobari edo hobekuntza batzuk.

Aldundiak katastroan egindako aldaketen ondorioz toki batzuetan ondasun higiezinaren zerga igo egingo da, baina Udalak laguntzak jarriko ditu ordaindu ezin dutenentzat

lāsa eta zergak udalen errekaudazio modu nagusiak dira. Tasa eta zergak zehaztuz kalkulatzeko aurrekontueta-rako sarrera nagusiak.

Zenbait onura

Ekonomia jardueran gaineko zergan,kooperatibei %50eko hobaria ezartzea erabaki da, "ekonomia sozialean sinesten" du Udalak.

Egoera zailenean dauden kolektiboei laguntze aldera, gazteentzako ere hobari berri bat onartu da: Kirol patronatuaren abonuan, langabezian edo ikasten ari diren gazteak familiako bonuan sartzeko adin muga 25etik 30 urtera igo da.

Katastroaren eragina

Gipuzkoako Foru Aldundiak Azpeitiko lurren balioa berrikusi du, eta aldaketa nabarmenak egin ditu, bai lur orokorretan (%5,17) eta industrialean ere (%15). Maiatzean jaso zuen balorazio berria Udalak, eta berehalakoan agertu zion desadostasuna Aldundiari. "Azpeitia osoko lurren balorazioa egiteko 15 etxeren transakzioak, sal-erosketak, bakarrik izan dituzte kontuan. Beasainen, esaterako 56 etxe hartu dituzte kontuan; Lazkaon, 64. Balorazioak Diputazioak egin ditu, alde bakarrez, eta Azpeitiko Udalako teknikoei ezer galdetu gabe, informazio kontrastatu gabe", adierazi du Estitxu Elduaiei Ogasun zinegotziak.

Udala bat ez datorren balorazioak egin dituzte zonalde batzuetan: adibidez,Alde Zaharra eta Babes Ofizialeko etxeak. Igo egin diete balioa: "Alegazioak aurkeztu genituen Diputazioan, gure desadostasuna azaltzeko, eta bilera ere eskatu genuen, bai teknikoei eta baita diputatuarekin ere, gaia aztertzeko. Idatziz jaso dugun erantzun bakarra izan da ez dituz-

tela onartzen gure alegazioak, eta bilera-ren zain gaude oraindik", azpimarratu du Elduaiei.

Kooperatibei %50eko hobaria ezarri zaie ekonomia jardueren gaineko zergan, Udalak "ekonomia sozialean sinesten" duelako

Egoera honen aurrean, zer egin aztertzen aritu dira udaletxeko tekniko eta politikariak, eta arduraz jokatu, tasa igotzea erabaki da; %5,17 igoko da orokorra eta %15 industrial, errekaudazioa mantetzeko beharrezko den juxtu-juxtuko kopurua.

Hori eginda, herritarren %53k orain arte ordaindutakoa baino gutxiago or-

dainduko du OHGZ 2017an, eta %47k gehiago, eta industrial ordaintzen duten guztiei jaitsi egingo zaie 2017. urteko Ekonomia Jardueren Gaineko Zergaren erreziboa.

Diru-laguntza linea berria

"Jakitun gara, katastroaren aldaketa horren ondorioz, igoera injustuak izango dituztela herritarrek, eta hori konpontzeko, diru-laguntza linea bat irekiko dugu, igoera horiek konpentsatzeko asmoz", azaltzen du Elduaiei.

Bi motatako diru-laguntzak emango dira datorren urtean. Alde batetik, diru-sarrera txikiak izan eta Ondasun Higiezinaren zergari aurre egin ezin dioten herritarrentzako laguntzak egongo dira. Horren bidez zerga ordaintzeko diru-laguntzak banatuko dira. Beste aldetik, berriaz, tasaren igoerari aurre egin ezin diotenentzako laguntzak egongo dira. Bigarren laguntza horren bidez katastroaren aldaketak sortutako egoera injustuei aurre egitea da helburua.

2017. urteko egutegi fiskala

Zerga mota	Aurreikusitako ordainketa epeen hasiera	Aurreikusitako ordainketa epeen bukaera
Trakzio mekanikodun ibilbailguen gaineko zerga	2017/03/15	2017/05/02
IBIAk	2017/11/02	2017/12/26
Hilerriko zerbitzua	2017/07/01	2017/08/25
Estalgarriak	2017/07/01	2017/08/25
Azoka	2017/07/28	2017/09/25
Mahaiak eta aulkiak	2017/09/05	2017/10/25

Herriarren eskaerei gero eta azkarrago erantzuten

Martxoan udal kudeaketa hobetzeko abian jarritako tresna informatikoa emaitza onak ematen ari da; orduetik azaroa bitartean 1.500 eskaeratik gora kudeatu dira



azpeitiko Udalak eguneroko lanak kudeatzeko tresna informatiko berria estreinatu zuen otsailaren bukaeran. Hilabete hauetan emaitza bikainak eman ditu: “Orain artean tresnaren funtzionamendua ikasten eta udal barruko funtzionamendua egokitzen joan gara, eta emaitza txukunak lortzen ari garela uste dut. Herriarrei eskaintzen diegun zerbitzuaren azkartasunean eta kalitatean pauso kualitatibo nabarmena eman dugulakoan nago”, adierazi du Labakak. Eta horixe da helburua herriarrei eskaintzen zaien zerbitzua hobetzea eta eskariei lehenbailehen irtenbidea eta erantzuna ematea.

Aplikazio informatiko horrek, lehen paperean egiten ziren eskaera asko on-line eta zuzenean kudeatzea ekarri du. Eskaera bakoitzak bere arduraduna du hasieratik zehaztuta, eta eskaera guztiek erantzun bat jasotzen dute amaierara iristean.

Martxotik, 1.500 lan inguru kudeatu dira. Udal barnetik sortutako lanak, sail batek besteari eskatutakoak 840 inguru izan dira. Hor sartzen dira herri lanetako udal brigada zein udaltzaingoak egunerokoan egiten duten herri zaintza lanetan detektatutako konponketa edo garbiketa lan konprentuak ere.

Herriarregandik 635 eskari jaso dira: “Udalak benetan eskertu nahi du herriar horiek Azpeitia hobeagoa eraikitzeke egindako ahalegina”, adierazi du Labakak. 635 eskari horietatik 120 herriko eragileek antolatzen dituzten ekitaldietarako eskariak izan dira: “Udalaren azpiegiturak, baliabide publikoak, herriko eragileen esku jartzen ditugu, taldeek auzolanean-herrigintzan egiten duten lana erraztu eta laguntzeko. Azpeitia herri bizia da, ikusi besterik ez dago taldeek antolatzen duten ekitaldi kopurua”, azaldu du. Herriko taldeetatik herrigintzan egiten den esfortzua eta

Udalak egiten duen ahalegina daude horren atzean.

Erantzuna, azkarra

Udalan eskaria egiten duten herriar orori erantzuna ematen zaie: “Lehen, askotan, herriarrek zerbait konpontzeko edo eskatzen bazuten, konpontzen zen, baina ez zitzaion jakinarazten herriarri. Orain, jasotzen ditugun eskari guztiei erantzuten diegu; gehienetan konponketa egin dugula esateko deitzen diegu. Baina bere eskaera arrazoi bategatik edo besteagatik baztertzen dugula esateko ere deitzen diegu. Eta orohar, herriarrek asko eskertzen digute deia”, azpimarratu du Labakak. Batez beste, 17 egunetan ematen zaie erantzuna eskariei. Gehinetan, arazoa konpondu ostean erantzuten da. Batezbesteko epea laburtzen joan da tarte honetan: martxoan 26 egunera ematen zen erantzuna, apirilean 21 egunera, irailean 11ra eta urrian 8 egunera.

Herri barruko zein kanpoko bidegorri sarea osatzen

SAN MARTIN ESTRATA ETA ARTZUBIAN BIDEGORRIA

herri barruko bidegorri sarea osatzeko San Martin estrata eta Artzubia kalean bidegorria egitearekin batera beste hainbat azpiegituraren hornikuntza egiten ari dira. Hala, obren lehen fasea bukatzeaz dela, San Martin estrata erabat eraberrituta dago; bigarren fasean, Artzubia kaleko bidegorria egingo da. Guztira, 176.418 euroko aurrekontua du.



ANARDI INDUSTRIAGUNEKO LOTURA

azpeititik Zestoara arteko bidegorri sarea osatzeko falta zen margoketa lanak egin ditu Azpeitiko Udalak Anardiko industriagunean. Orain artean, ez zegoen seinalizaziorik errepidean, baina hemendik aurrera bidegorria markatutako zatian bizikletek izango dute lehentasuna. Argiteria jartzeko egin beharreko tramite eta egokitzapenak egiten ari da orain Udal.



Inguru oso baten eraldaketarako eta segurtasunerako obrak

Uholdeen kontrako neurriak



Sanjuandegi auzoaren uholde arriskua txikitzeko neurrien artean, Urola ibaiaren ertzetan orain artean zegoen barandilla kendu eta harrizko petrila egitea ekarriko du.

Igerilekutik bibibilgunera arteko zatian, dagoeneko hasi dira aldaketa egiten, eta udaberria bitartean, zubi berritik hasita horma egingo dute.



Ibaiko horma egonkontzeko lanak

igerileku parean, Urola ibaiak daraman uraren higadurak Loiolabide aldeko horma gasatatu du eta hondorratzen ari zen pixkanaka-pixkanaka. Hori horrela, ibaiaren alde hori egonkortu eta horma sendotzeko lanak egin ditu Azpeitiko Udalak azken hilabeteotan.



Bi auzorentzako lotunea



etxebeltz-Izarra eta Sanjuandegi lotuko dituen zubiaren lanak bide onetik doaz, eta udaberrirako bukatuta izango dira. Zubia eta inguru horretako urbanizazio lanak.

Zubia egitearekin batera Sanjuandegi auzoan uholdeen arriskua txikitzeko neurriak hartzen ere ari dira, eta Salbe auzoa berrantolatzeke eta konpontzeko obrak ere aurrera doaz. Udaberrirako obra guztiak bukatuta izatea aurreikusten du Azpeitiko Udalak.



Ingurua egonkortu eta txukundu

esklaben aurrean, Etxebeltz etxearen eta Loiolabideko etxeen arteko lur-eremua egonkortzeko lanak bukatu berri dituzte. Lan horiek bukatuta, orain autoentzako 35 plaza gehiago eskainiko dituen aparkalekua egin eta Loiolabideko bi eremuen arteko paseoa eta bidegorria lotuko dituen obrak hasiko dituzte eta hiru hilabetean bukatuta izango dira lanak. Guztira 230.000 euro inguruko aurrekontua izango dute lan horiek.

Espaloiare konponketa

esklabetatik Jesus Maria arteko espaloioa berritze lanak abian dira. Pasealekuaren alboetan dauden tiloen sustraiek espaloiko hainbat puntutan koskak sortu zituzten. Espaloiare egoeraren jakitun, eta hainbat herritarrek izako 'Denon artean' prozesuan eskaera eginga, obrak egitea erabaki zen.

Gaur egun, Gipuzkoako Urak Udalarekin koordinatuta pare horretako ur hoditeria berritzen ari da, horrekin batera beste hainbat azpiegitura ere berrituko dira. Datozen asteotan bukatuko dituzte lan horiek eta urtarilean espaloia eraberritzeko lanei ekitea aurreikusten du Udalak. Lan horiek 30.000 euro inguruko aurrekontua izango dute.



Aparkaleku berria

Salbe auzunean, 5-6 etxe-atarien atzeko aldean, autoentzako aparkaleku berria egiteko obrak hasita daude. Martxo alderako kotxeentzat 28 aparkaleku inguru izango dituen gunea berria bukatuta egotea aurreikusten du Azpeitiko Udalak.

Aparkaleku hau inguru guzti horretako urbanizazio berritze guztiaren baitako obretako bat gehiago da.

Gabon Zoriontsuak eta berri on! 2017

haurrentzat

gabonetako ekintzak

PIN (Bertan merkatarien elkartearen eskutik)

Abenduak 26, 27, 28, 29, 30 urtarrilak 2, 3, 4

Ordutegia: 16:00etatik 20:00etara

Lekua: Izarraitz Pilotalekuan

Sarrera: 2 € Adina: 2-12 urte

GAZTERIA SAILA • GABONAK 2016

Abenduak 26, astelehena Jolasak + gabon parkea

Abenduak 27, asteartea "Monkey-Park" irteera

Abenduak 28, asteazkena Sortu eta gozatu

Abenduak 26, astelehena Gozo, gazi, ummm...

Abenduak 27, asteartea "Txuri Urdin" irteera

Abenduak 28, asteazkena Gabon parkea

Abenduak 26, astelehena

Gaztelekua margotuz + hamaiketako

Abenduak 27, asteartea "PIN" irteera

Abenduak 28, asteazkena

Sukaldaritza + bazkaria gaztelekuan

Abenduak 26, astelehena Eskulanak

Abenduak 27, asteartea Irteera, Azpeitiarrekin

Abenduak 28, asteazkena

• Talde jolasak

• Txokolatada + bingoa jubilatuekin

2017ko Errege Kabalgata

Laster izango ditugu gure artean Errege Mago maiteak. Baigera jubilatuta taldeak antolatuta, erregeen pajeak, urtarrilaren 4an, asteazkena, 17:30ean udaletxeko arkupetan izango ditugu Azpeitiko haur guztien eskariak eta idatziak jasotzeko prest.

Urtarrilaren 5ean, osteguna, 17:30ean Errege Magoak trenetan iritsiko dira Azpeitiko Trenaren Museora. **Lasaora 17:00ak** inguruan iritsiko dira bertako umeak agurtzeko eta jarraian, trena hartuko dute Azpeitira abiatuz.

Azpeitiko haurrei ongi etorria eman ondoren, Igerilekutik abiatuko dira eta 19:00etan Azpeitiko kaleetan zehar ohiko **ERREGE KABALGATARI** hasiera emango diote. 20:00ak inguruan iritsiko dira Plaza Nagusira, eta bertan Errege Magoak Udaletxeko balkoira igoko dira herriko haur eta gaztetxo guztien eskaerak eta ilusioak entzuteko.

Beraz, ez ahaztu, kabalgata ikustera joatea datorren ostegun arratsaldean. **BESTERIK GABE, ERREGE ONAK OPA DIZKIZUEGU.**

TXIKI BIRAN: "Ene kantak"

Urtarrilak 7

Ordutegia: 16:30ean

Lekua: Soreasu Antzokian

Sarrera: 6 €

www.enekantak.com